

# ZM

ZORROTZ MORRÖTZ

38. 750A 2016ko MARTXOA



## BEÑAT, ALBA ETA IÑAKI

BOGA GARAGARDOAREN BAZKIDE ETA SORTZAILEAK

TXALAPARTA TAILERRA

# Allianz



Menfer Insurance Group S.L.

Geltoki bidea 1, behea  
48013 Zorrotza

Tel. 946551773  
Sakelakoa. 691218922

E-mail: [valerio.merino@allianzmed.es](mailto:valerio.merino@allianzmed.es)



# Udal agintariekiko bilerak eta Zorrotzatik EHUra joateko Bizkaibus geltokia

Orain dela gutxi hainbat Udal sailekin bilera batzuk izan ditu Auzo Elkarteak:

Garraio eta Ingurugiro Saileko zinegotziaren ondokoarekin. Alkatea, alkateordearekin eta Lan eta Zerbitzu Saileko zinegotziarekin. Eta hirugarren bilera Lan eta Zerbitzu Saileko zinegotzi eta zuzendariarekin. Bileran hauek guztietan eta etorkizunean suertatu daitezkeenetan, Auzo Elkarte Zorrotzak dituen arazoak eta beharrianak adierazten ari zaie bildutakoiei.

Ildo horretan aipatu behar da, urte askoan aldarrikatu ondoren, Zorrotzako ikasleek EHUra joateko geltokia izango dutela auzoan. Bazen garaia.

Animo eta segi borrokan.



## HARPIDEDUN IZAN ZAITEZ!!

**ZM** zure e-postan jasotzeko, bidali mezu elektronikoko bat **zmorrotz@gmail.com** helbide elektronikora, gaiaren laukian **“harpidetza”** jarriz



# ZM ZORROTZ MORROTZ

Zorrotzako kultur aldizkaria  
38. zenbakia. 2016ko martxoa

Argitaratzen du:  
Zorrotzako Euskal Txokoa

**AEK euskaltegia**  
**Zalbidea, 7 behe**  
**48013. Zorrotza. Bilbo**  
Tfnoa: **94 441 49 20**  
**622 61 90 20**

Emaila: **zmorrotz@gmail.com**

 **facebook.com/ZorrotzMorrotz**

**Koordinazioa:**  
Aitor Marín

**Diseinua eta maketazioa:**  
amc diseinua

**Erredakzioa:**  
Ibai Barrios  
Ainara García  
Igor Gutiérrez  
Haizea Olleta  
Aitor Marín  
Naroa Peña  
Iratze Pérez  
Lorna Yáñez

**Zuzenketak:**  
Iñigo

**Laguntzaileak:**  
Karlos Rodríguez  
Manu Cobo  
Santurtziko Irakurzale Kluba

**Inprimaketa:**  
Ain Graf



zurea da fitza  
**euskara**  
no te lo pierdas.



**MADNESS KAFETEGIA**  
Elena eta Javier  
Zalbidea estazioa, 5 - atzea  
**ZORROTZA**  
48013 BILBO

**MADNES**

Tel. 94 441 62 75



**BAR VENECIA**

**Espezialitateak:**  
Kafea, tortilla, tortilla beteak  
eta bestelako pintxoak

Abaro estarta IO

**AUPA ATHLETIC**



**Dantzari**

Camino Zorrozegeti 1,  
94 612 93 85

 **drinks**  **txoko**  **music**  **marra**

# Zorrotzako hirigintza-aukerak, Arkitektura ikasleen aztergai



Igor Gutiérrez

Urtarrilaren 25ean, EHUko arkitektura ikasleek Zorrotzaren inguruan burutu berri dituzten lanak ezagutarazteko aurkezpena egin zen, Auzo Etxean. Laugarren mailako ikasgai baten baitan -Hirigintza V – Planeanmendurako sarrera-, gure auzoaren hirigintza-aukerak aztertu eta guztira 18 proiektu osatu dituzte ikasleek, taldeka. Helburu akademikoaz gain, proposamenek udal hirigintza-planetarako iradokizunak eskaintzea dute xede.

Pasa den ikasturtean, Bilboko beste auzo bat izan zuten aztergai Donostiako Arkitektura Goi Eskolako ikasleek, Zabala, alegia. Esperientzia positiboaren ondoren, Bilboko beste auzo batekin errepikatu nahi eta gurera jo zuten. Horrela, Auzo Elkarreak lagundurik, Zorrotzako bazterrak miatu eta auzotarren beharrak auzotarren ikuspuntutik ezagutu zituzten.

Batik bat, lanek Zorrotzako Puntaren ardatzean garatu dira, ustiatu gabeko eremurik handiena baita. Hala eta guztiz ere, datorren ikasturteari begira egungo auzoaren beste

leku batzuetan esperientzia errepikatzea proposatu die Auzo Elkarreak, hala nola, Zazpi Landan.

Aurkezpena espero bezain jendetsua izan zen, hirigintza-proiektuek gurean pizten duten jakinminaren seinale. Bilboko hainbat zinegotzi ere Zorrotzara hurbildu ziren proposamenen berri izateko. Honezkerok, ikasleek posterrak Auzo Etxean erakusgai jarri dira.



# Inauteri jendetsua nahiz eta eguraldia kaxkarra izan

Naroa Peña

Otsailaren 13an, inauteria ospatu zen Zorrotzan. Zoritarrez eguraldi kaxkarra izan genuen, eta Zazpilandatik behera egiten den jaitsiera ez zen egin. Horren ordez, autopistapean (gaztetxearen alboan) desfile bat egin zen. Urtero bezala, jende askok parte hartu zuen, elkarteak eta tabernak barne, eta sari piloa banatu zen. Ibai Arte irabazlea izan da elkarten artean eta Soul taberna denden eta tabernen artean.



# Bizkaibus geltokia egongo da Zorrotzatik EHUra joateko



Zorrotz Morrotz

Azkenean, herri mugimenduaren aldarrikapen historiko bat gauzaturata izango da eta Zorrotzatik EHUra Bizkaibusez zuzenean joateko aukera izango dute auzoko ikasleek. EH Bildu Batzar Nagusietako taldeak jaso zuen aldarrikapena eta Balmaseda eta EHUren arteko linea berriak Zorrotzan geltokia iza-

teko proposamena sartu zuen Batzarreko biltzarrean. Koalizio abertzalearen ahaldu-na den Zigor Isuskizak azaldu zuenez, Aldundiarekin harremanetan jarri ziren, baina "erantzunik jaso ez genuenez", proposame-na plazaratu zuten. Foru Gubernutik, aldiz, Zorrotzako ikasleentzat irtenbiderik onena geltokia Barakaldotik ateratzen zen linean sartzea zela erantzun zuten. "Distantziagatik, erabiltzaileek denbora aurreztuko dute" azaldu zuten Foru Gubernutik. Balmasedako linea desbideratzeak ibilbidean ere arazoak eragingo zituela azaldu zuten, eta Zorrotzako erabiltzaileentzat hobea zela azpimarratu zuten, egunero Barakaldotik hamabi autobus ateratzen baitira eta Balmasedatik, aldiz, soilik zortzi.

Hasieran, geltoki hau otsailearen 22an funtzionamenduan egongo zela iragarri zen arren, aldizkari hau ixterakoan oraindik zerbitzua ez zegoen martxan. Aldunditik erantzun dute oraindik behin betiko datarik ez dagoela. 946125555 telefono zenabakian informazio gehiago eska daiteke.

## Martxan da Usandizaga musikaria kaleko igogailua

Urtarrilaren bukaeran Usandizaga Musikaria kalea autobidea gurutzatzen duen oinezkoen pasabidearekin elkartzten duen igogailua martxan jarri zen. 22 metroko pasabide berri batekin osatzen da igogailua. 13 pertsona batera sartzten dira barruan, 10 metro igoten da eta efizientzia energetiko neurri berriak betetzen ditu.

Igogailu honekin eta Bidegain kaleko aldapako kabina jasotzailearekin, aspaldiko herri mugimenduak eremu altuetako irisgarritasun arazoak hobetzeko egindako eskakizunean pauso bat eman da.





## Barinaga kalea

Kale hau Hermogenes Rojo kalean hasi eta Artxer marinelarenean deko amaiera, Mikel deunaren plaza igarota. Kale honen alboan garbitokia eta landako iturria zegozan. Benito Barinaga y Angoitia Okondon jaiotakoa apaiza zan, bere izeko batek itzi zautson kale horretan eginda dagozan etxetaldia. Horrexegatik "apaizaren etxeak" izenagatik ezagunak dira auzoan, 1933an izendatu ebien kalea bere oroimenez.



Garbitokia



"Apaizaren etxeetako" saneamendu lanak



”la Caixa”

## Zeu zara izarra

Abaro estarta, 5  
48013 Zorrotza (Bilbo)  
Tel. 94 459 00 90

[www.lacaixa.es](http://www.lacaixa.es)

# “ Eguraldi ona, janari ona... ez dago kexarik Zaragozan ”



## ROI SILVA

**Bizitokia:** Zaragoza

**Noiztik:** 2009tik

**Adina:** 29 urte

**Lanbidea:** Geologoa

Gurasoen etxetik geologia lizentziaturako azken urtea egitera heldu zen Roi orain dela sei urte Zaragozara. Masterra ere bukatu ondoren, beka bat eskuratu zuen, lagun mordoa egin du, eta baita neskalaguna aurkitu ere. Hemengo bizimodua hangoarean antzekoa dela dio, eta ez: momentuz ez du bueltatzeko asmorik azaltzen.

lagun gehienak lanean daude; ez nuke esango erreza denik, baina lana badago.

Ainara Garcia

### **Nolatan eta zergatik joan zinen Zaragozara?**

SICUE programaren bitartez (ERASMUSen antzekoa dena, baina estatu barnean) beka bat eskuratu nuen eta geologiako lizentziaturako azken urtea egitera etorri nintzen.

### **Oso ezberdina da hango bizimodua edo aukokoaren antzekoa da?**

Niretzat kristoren aldaketa izan zen, batez ere lehen aldiz gurasoen etxetik kanpo bizi behar bainuen. Zaragozan ikastea oso eroso da, unibertsitatea hiriaren erdian dago, eta oinez bost minutuan heltzen naiz. Eguraldia ere ezberdina da. Egunero eguzkia... Horrek izaera ere aldatzen du.

### **Erraza al da bertan lan duin bat lortzea?**

Nire kasuan geologiako lizentziatura eta masterra bukatu eta berehala beka bat eskuratu nuen doktoretza tesia egiteko, eta oro har nire

### **Gogorra egin zitzazun bertako lan eta bizi ohituretara moldatzea?**

Zazpi Landakoa izanda, hasieran gogorra egin zitzaidan bat-batean hiri baten erdian egotea, eta mendirik ez ikustea, kar, kar! Gainera, Zaragozatik irten eta berehala dena lehorra da, ez dago zuhaitz triste bat ere, eta euskaldun batentzat hori apur bat dramatikoa izan daiteke... Gainera, Zaragozan ez da poteorik egiten Euskal Herriaren egiten den moduan. Jendea taberna batean geratzen da finko, eta hasieran horrek ere apur bat urduri jartzen ninduen. Bromaz aparte, hemengo bizimodua hangoarean antzekoa da: jende atsegina, eguraldi ona, eta jatekoa ona izanda, ez dago kexarik.

### **Zelan moldatu zara bertako janariarekin?**

Janaria antzekoa da, baina berezitasunak badituzte. Dena den, Euskal Herritik hain hurbil

egonda, arraroa egiten zait Zaragozako eta oro har Aragoiako produktuak ez heltzea; nik behintzat ez nituen ezagutzen hemengo longaniza, "borrajak" edo "huevos rotos" izeneko janariak. Beharbada arkumea da daukaten platurik gozoena da, hemen "Ternasko" esaten diotena. Aragoiara bazatozte, ez ahaztu! Terueleko urdaiazpikoa ere, benetan kalitate onekoa da. Ardoa ere oso ona da, nik gustukoan dudana Somontano jatorrizko deiturakoa da. Hemengo garagardoa ere, Ambar, oso ona iruditzen zait. Bertako janaria probatzeko "El Tubo" izeneko kalea gomentzen dut, eta "El Fuelle" jatetxea. Nabaria da ondo moldatu naizela...

**Zer da handik gehien gustatzen zaizuna Zorrotzarekin alderatuta?**

Ez dut inoiz, edo ia inoiz garraio publikorik hartu behar, oso hiri laua izanik, eta eguraldia ona. Gainera, Zaragozatik hurbil kristoren eskalada gunea dago (Morata de Jalón herritik hurbil), eta askotan joan gaitzeko eskalatzerara.

**Zorrotzara maiz etortzen zara?**

Hru hilabetean behin edo... Dena den, gehienetan egun pare batez baino ez naiz geratzen, eta askotan etxekoekin baino ez naiz egoten.

**Zerbait sumatu izan duzu faltan?**

Gurasoak, lagunak, eta musika. Hona etorri baino lehen, auzoko Turutarra fanfarrean egon nintzen hamabi urtez. Hona etortzean utzi behar izan nuen, eta han pasatako urteak eta parrandak faltan ditut. Kuadrilla ere han utzita, gauza asko galdu ditudala iruditzen zait. Noiz-behinka bueltatzen naiz, baina ez dut denbora nahikorik lagun guztiekin egoteko, bisitak egi-

teko... Esan beharra dago oso bisita gutxi jaso ditutala, bai familiakoen aldetik, baita lagunuen aldetik ere. Hau irakurtzen ari bazarete, badakizue! 300 km baino ez dira!

**Nolakoa da zure bizimodua Zaragozan?**

Egunean ordu asko sartzen ditut unibertsitatean, baina arratsaldeetan normalean garagardo batzuk hartzera joaten naiz, unibertsitateetik bost minutura dagoen taberna batera. Asteburuetan askotan Pirinioetara joaten naiz, edo Zaragozatik hurbil dauden guneeetan eskalatzerara. Batzuetan bertan geratzen naiz, lagunekin parrandan ateratzeko.


**Zein litzateke zure ustez zaragozarren ezau-garririk adierazgarriena?**

Jendearen atsegintasuna, eta gogortasuna aldi berean. Jendea Euskal Herrian baino irekiagoa da, umore onekoa, baina baita gogorragoa ere. Brometan egotea gustatzen zaie, eta kontu polemikoetan sartzeko ez dute batere ardurarik.

**Bertan geratzea erabaki erraza izan zen, edo denborarekin hartutakoa?**

Erraza izan zen, hasieran erabat "naturala" iruditzen zitzaidan, lizentziatura bukatutakoan ikerketa egin nahi nuelako, eta Zaragozako unibertsitatean master ona zutelako geologian ikerkuntzan hasteko. Handik aurrera, Zaragozara moldatu nintzen, lagun mordoa egin nuen, neska aurkitu nuen... eta aldi baterako geratzea erabaki nuen. Orain arte, 6 urte egin ditut hemen, eta oraindik ez daukat bueltatzeko gogorik. Dena den, laster hemendik alde egitea espero dut, atzerrian ikerketa lanarekin jarraitu ahal izateko.

**Pizzeria Jatetxea**



**La Viña de Oro**  
Zorrozgoiti 1 · 944 994 247

*independentzia!*  
**SOZIALISMOA!**



**ASKABIDE**  
**kultur elkarte**  
**zorrotza**

ITZULERA GOGOAN.  **Frai Juan 20** • Tel: 688 855 648  
taupaden arrazoia askabidezorrotza@gmail.com

## TXALAPARTA TAILERRA

# Txalaparta doinuak auzoan zehar zabaltzen

2012. urteko irailean abiarazi zen guztiz doakoa den tailer hau. Geroztik hainbat pertsona eman dute izena, eta adin guztietako jendea biltzen da tailerrean. Jotzeko dinamikan bikotetan elkartu eta estilo librea zein euskal kulturaren aitzindariak diren abestiak jotzen dira, helburu nagusia ondo pasatzea izanda.



**Testua:** Ibai Barrios  
**Argazkiak:** Aitor Marín

Euskal Herriko historian aitzindaria da txalaparta. Euskal kulturaren erreferentzia garrantzitsua dugu perkusio instrumentu hau dudarik gabe. Hori guztia abiapuntutzat hartuta eta hainbat ekintzen artean txalaparta tailerra abiaraztea pentsatu zen 2012. urteko irailean. Frontoi azpiko lokalean hasi ziren lehenengo txalapartariak ttakun erritmoak lantzen eta horrez geroztik hainbat pertsona eman dute izena. Esan beharra dago proiektu hau

guztiz doakoa dela eta hainbat eragileren laguntzaz lortu dela aurrera ateratzea. Eragileen artean aipatu behar dugu Txinbotarrak konparttsaren ezinbesteko laguntza. Tailerra garatzeko orduan beharrezkoak ziren material gehienak (egurra, makilak...) bere finantzaketaren bidez lortu ziren. Aipatu beharra dago halaber duela urte batzuk Zorrotzako AEK-k ikastaro bat egin zuela eta hasieratik erabili izan diren egur-taula batzuk beraien laguntzari esker lortu izan zirela. Ezin dugu ahaztu tailerraren hastapenetan hainbat pertsonaren laguntza materiala lortzeko orduan.

Historiari jarraiki, eta txalapartaren mundua ahalik eta gehien ezagutarazteko ikastaroan lantzen diren estiloak aipatu behar dira. Alde batetik txalaparta zaharra, non ttakun-ttakun erritmoen progresio arina funtsezkoa den. Bestidanik ezagutu dugun jotzeko era da hau. Bestetik txalaparta berria, non erritmoak lasaiagoak eta markatuagoak diren.

Adin guztietako jendea biltzen da tailerrean, garrantzitsuena ikasteko eta jotzeko gogoia izatea baita. Hasiera-hasieratik biltzeko eguna larunbata izatea adostu zen. Gaur egun ere hala da, baina ikastaroa bi astetan behin egiten dute gutxi gorabehera, batez ere jendeak hainbat arrazoi direla medio ezin duelako. Jotzeko dinamikan bikotetan elkartu eta estilo librea zein euskal kulturari aitazindariak diren abestiak jotzen dira, hala nola Aldapeko sagarraren edo Zazpi Jauzi. Tailerrak bizirik irautean duen seinale esan behar dugu jauzi kualitatibo handia izan dela. Auzoko polikiroldegian gela bat lortzea lortu zen eta frontoi azpiko lokalarekin alderatuta abantailak nabarmenak dira dudarik gabe, batez ere hotzari aurre egiteko orduan. Materiala gordetzeko ere leku ezin hobea daukate honako hau, denboraren poderioz egur-taula eta makilen zahartze-prozesuari aurre egiteko.

Txalaparta tailerra auzoan zehar zabaltzeko egiten diren ekimenak aipatuko ditugu hurrengo lerroetan. Zorrotzako jaietan erakustaldi librea egiten dute, non adin guztietako jendea biltzen den. Dena den, pasa den urtean auzoko txikiei begira antolatu zen ekitaldia. Bertan ikusi ahal izan genituen azken



**Larunbatetan bi astetan behin biltzen dira. Garrantzitsuena ikasteko eta jotzeko gogoia izatea da. Azken finean, helburua ondo pasatzea da**

belaunaldietako txalapartariak. Tailerrean bi haurrek ere eman baitzuten izena eta ilusio handiz joaten dira. Azken finean, helburua ondo pasatzea eta auzoko jendearen harremana bultzatzea da. Horren adibide gisa, Zorrotza Eguna, Txinboeguna edo Bilboko jaietan antolatzen diren ekitaldien artean txalaparta tailerrak duen pisua. Ezin ahaztu iaz Basurtuko jaietan egin zuten erakustaldia, jende asko hurbildu baitzen beraiekin ondo pasatzera. Edo txalaparta mugikorrek edozein lekutan ematen duen bizitasuna. Egurra- ren doinuak aurrera jarrai dezala.


**BETAURREKO GRADUATUAK**



**49€**

**ibarretaluxury**  
OPTICA

**BLACKGUARD64**



**Taberna**  
**AITOR**

José eta Juan Carlos

Soka kalea, 11. Zorrotza  
Tel. 94 482 07 96



**alBoka**  
taberna

Soka kalea, 5  
Zorrotza  
48013 BILBO

Tfno. 94 499 29 43

## ALBA DONADEU, BEÑAT PEREDA ETA IÑAKI LEONARDO Boga Garagardoa Kooperatibaren sortzaileak

“Euskal Herrian, orain arte, ez dugu garagardoa kalitatezko produktu moduan hartu”



lazko abuztuan ekin zion bideari Boga Garagardoa merkaturatzen duen Kooperatiboak. Sei bazkide ditu kooperatibak, eta seietatik Zorrotzarrak dira: jardun osoz ekoizpenaz arduratzen den Alba Donadeu eta laguntzaileak diren Beñat Pereda eta Iñaki Leonardo. Haiekin egon gara Mungiako plantan, garagardo goxoa dastatzen, eta proiektu honen gainean gehiago jakiteko asmoz. Topa!

Testua eta argazkiak: Aitor Marín

### **Zein da bakoitzaren eginkizuna Bogan?**

Alba: Kooperatiban sei bazkide gara. Hori-etatik hiru bazkide-langile gara eta beste hiru bazkide-laguntzaile. Ni bazkide-langilea naiz eta ekoizpenaren arduraduna naiz. Garagardoa ekoiztu, barriletan eta botiletan sartu, produktuaren kalitate kontrola eta errezeta berrien diseinu eta lanketak dira nire egin-beharrak. Aditu mailan egiten diren azoka eta jaialdietara joan behar izaten dut maiz.

Beñat: Bogaren bazkidea naiz. Ez dut hemen lanik egiten, baina Alba laguntzen dut, batez ere alderdi teknikoetan.

Iñaki: Ni bazkide-laguntzailea naiz eta ahal dudan heinean laguntzen dut.

### **Zelan eta noiz sortu zen Boga?**

B: Kukatza gaztetxean sortu zen ideia. Bertan saltzen zen garagardoa egiten hasi ginen. Han diseinatutako planta oso xumea zen, baina balio izan zigun garagardoaren ekoizpenean lehenengo hartu-emana izateko... Kukatza eraiestearekin batera, nor bere eremuan ibili ginen, baina orain dela bi urte berriro batu ginen garagardo kooperatiba sortzeko, oraingo honetan serio hartzeko asmoz. Pixkanaka-pixkanaka pausoak ematen hasi ginen eta dagoeneko, badakagu gure planta Mungian.

### **Auzoko bi tabernatan eska daiteke Boga garagardoa. Jaietako txosnetan iturriak jarri zenituzten, Bilboko Aste Nagusian ere bai... Bogan dago boga?**

A: Txosnetan lehenengo urtea izanda, ondo funtzionatu duela esan daiteke. Zorrotzan Bogazale asko dago eta kontsumo handia dago auzoan, nahiz eta Alboka eta Askabide tabernetan baino ez dagoen Boga salgai. Askok gustatuko litzaiguke beste taberna batzuetara hedatzea, baina lan asko falta zaigu hori lortzeko. Horretan gabilta.

### **Malta, lupuloa, legamia eta ura... 4 osagai eta milaka aukera posible... Hasi zinetenahar, zeren bila zenbiltzaten? Nolakoa izan behar da garagardo on bat?**

A: Proiektua hasi genuenetik, oso argi genukan kontsumitzaile ororengana heltzea zela gure helburua. Oro har, garagardoa gustukoa duen kontsumitzailea, baina aditua ez



**“ Zorrotzan Bogazale asko dago eta kontsumo handia dago, gure garagardoa momentuz, soilik bi tabernetan salgai egon arren ”**

dena. Horregatik, hasierako bi errezetak (pilsen eta amber) garagardo arinak dira, bezero hau garagardo artisauaren mundura erakartzeko poliki-poliki. Honek ez du esan nahi kalitate txarrekoak direnik, kontrakoa baizik. Garagardo oso suabe eta orekatua egitea garrantza lortzea baino askoz zailagoa da... Bi produktu hauek merkatuan finkatuta, barietate berriak ateratzen joango gara, landuagoak eta sendagoak, garagardo artisauaren munduan sakondu nahi duen ororentzat.

### **Gure zaporea ei dauka zuen garagardoak. Zein da zaporea hori?**

B: Kalitatez ekoiztutako garagardo artisau baten zaporea da. Erabiltzen diren lehen-gaiak, kalitate handikoak dira. Prozesuan ez



**“ Bogaren lehengaiak %100 naturalak dira. Garagardo industrialek, aldiz, estraktuak eta garagarra ez diren beste zereal batzuk erabiltzen dituzte ”**

da inongo produktu kimiko gehigarriak erabiltzen, eta horrek produktu naturala egitea ahalbidetzen du. Gainera, osagaien parte handi bat Euskal Herrikoa da. Lupulua eta legamia kanpotik datoz, hemen ez baitago ekoizpenik, baina ura hemengoa da eta malta Nafarroako San Adrian herrian erosten dugu. Bertako ekoizleekin, malta Euskal Herrian ekoiztua izan dela frogatzeko nolabaiteko ziurtagarria lortzeko hizketan gara.

**Zerk ezberdintzen zaituzte garagardo industrialetatik?**

B: Garagardo industrialek garagarra ez ezik, beste zerealak ere erabiltzen dituzte: artoa, arrosa... Lupulua bota beharrean, askotan lupulo-estraktua erabiltzen dute. Merkeagoak diren lehengaiak erabiltzen dituzte eta horrek kalitatean eragina dauka. Guk erabiltzen ditugun lehengaiak %100 naturalak dira.

**Gero eta artisau garagardo gehiago dago. Kideak zarete edo lehia dago zuen artean?**

I: Zenbat eta artisau garagardo gehiago eta hobek egon, askoz hobeto merkaturako eta kontsumitzaileentzat. Ez dago artisau garagardogileon artean lehia zuzenik. Kalitatezkoak eta produktu naturalak izatea da funtsezkoa. Lehia garagardogile industrialekin da, haien formula sekretu eta produktu kimikoekin...

**Eta zein da publikoaren erantzuna? Euskal Herria garagardozailea da?**

A: Izaten ikasten ari da. Orain arte, ardozale herria izan da, baina gazteriak, gero eta gehiago, garagardora jotzen du.

B: Nire ustez, parrandan ibiltzeko egarria kentzeko bitarteko bat izan da garagardoa orain arte Euskal Herrian. Ez dugu garagardoa kalitatezko produktu moduan hartu, ardoarekin gertatzen den bezala.

**Zelan doaz salmentak? Gora badoaz, artisau izaera utzi behar izatearen beldur zarete?**

A: Uda garaian nahiko ondo hasi ginen. Neguan nabaritu dugun beherakada, udaberrian gainditzea espero dugu. Abuztuan lehenengo urtea beteko dugu eta balantzea egiteko momentua izango da. Itxaropen baikorrak ditugu eta horiek betetzeko lanean gabilta. Hazteko beldurrik ez dugu. Bideragarritasun plana egin zenean, haztea aurreikusitua genuen eta hamar urteko ekoizpen kopururako makinaria erosi dugu, beraz, beldurrik ez.

B: Produktua artisau eta natural egiten duena ekoizpen prozesua da. Erabiltzen diren lehengaien kontrol zehatza, gehigarriak ez erabiltzea, pasteurizazio prozesurik ez egotea...

I: Guztioi interesatzen zaigu haztea. Kooperatiba sortu zenean, bertan lanpostuak sortzea zen helburu bat. Gaur bazkide-laguntzaile garenok lanean hasteko aukera, eta jende berria ere hemen lan egiteko aukera izatea.

**Zer garagardo mota atera duzue orain arte?**

B: Garagardo mota berriak egiteko lehenengo saiakerak Zorrotzan bertan egin genituen. 50 litroko planta txiki bat erosi genuen eta bertan lehengai kantitate ezberdinekin probatzen hasi ginen, garagardo mota ezberdinak egiteko. Mungiaiko plantan serio ekoizten hasi ginen: malta ukituen zapora arina suabea eta

orekatua den pilsen motako gargardo bat, Zorrotzan asmatu genuen malta txigortuaren ñabardurez betetako zapore orekatua duen amber motako beste bat, eta orain dela gutxi lupulo gehiago daukan "Ipa" motako garagardo berri bat sortu dugu. Nahiz eta horia izan, garratzagoa da.

#### **Botila ala kupela? Zer da garrantzitsuagoa?**

A: Kupelaren aldeko apustua egiten dugu. Kopuru handiagoa eta merkeago saltzeko aukera ematen digu kupelak eta garagardo dastatzeko biderik egokiena da. Dena den, tabernetako merkatuan kupelak botilak baino azkoz zailago saltzen direla konturatu gara, tabernari gehienek garagardo industrialekin iturrietarako eskusibotasun kontratua baitute.

#### **Gazteei enpresak sortzeko laguntzak eman ei zaizkie... Iristen al dira?**

B: Hasierako inbertsioaren %30 gutxi gorabehera erakundeetatik jaso genuen. Honetaz aparte, mailegu bat eskatu dugu kreditu kooperatiba baten bitartez. Kooperatiba horrek ezaugarri berezi batzuk dituzten proiektuei uzten die dirua, (etikoak, kooperatiboak), eta mailegua abalatzeko pertsona mordo bat erabili dugu. Hau da, norbanakoek guk eskatu dugun maileguaren zati bat hartu dute haien gain. Konfidantza asko jarri dute gure proiektuan eta hori eskertzekoa da.

#### **Etorkizuneko erronkak?**

A: Euskal Herritik kanpoko merkatua garatzen hasi behar dugu, kanpoko hainbat azokatan parte hartzen... Hazten jarraitzea eta salmentak handitzea. Ez da makala!

## **LABURREAN**

### **Garagardoa zuretzat...?**

A: Ohituren artean, esperientzia ezberdina  
B: Zaletasuna bihurtu den edaria.  
I: Munduko edaririk onena.

### **Boga aparte, gomendatzeko garagardoren bat?**

A: Dougallsen edozein.  
B: Dougalls 942.  
I: Ask. Denetarik probatzea gomendatzen dut

### **Garagardoa hartzeko unerik onena?**

A: Menditik nekatuta etortzean, aperitibo on batekin.  
B: Gustura zauden edozein unetan  
I: Lagunekin, familia edo bikotekidearekin gustura zaudenean.

### **Gogoratzen duzue zein izan zen hartu zenuten lehenengo garagardoa?**

A: 15 urterekin. Garagardo jaia egiten zen urtero nire herrian udan. Sarrera ordainduta nahi beste edateko aukera zegoen. Besterik ez zegoen edateko eta garagardoaren zaporea onartzen ikasi nuen. Damm bat izan zen.  
B: Ez dut gogoratzen... Gaztetan kalimotxozale amorratua izan nintzen, kar, kar.  
I: Ezta nik ere, gaztetan ez nuen oso gustuko... Suposatzen dut Zorrotzako edozein tabernatako zurito bat.

## **cafetxinbo**

**Espezialitateak:**

Tapak eta errazioak  
Kanapeak



Abaro estarta, 10  
Tel. 94 608 85 74

## **AUTO ESKOLA KAiKU**



Zorrotza Kastrexana, 1  
Tlfno: 94 427 88 10

## **amc** diseinua

### **Diseinu grafikoa:**

irudi korporatiboa • web • komunikazioa ...

Kartelak, Aldizkariak, Katalogoak, Folletoak,  
Kamisetak, Opari pertsonalizatuak...

[www.amcdiseinua.net](http://www.amcdiseinua.net)

Aurrekontuak eta info +: **Tel. 657 732 934 • aitor@amcdiseinua.net**

## Odolki konpota sagarrarekin, kakahuete krokantepean, kipula karamelizatu gainean



**Osagaiak:** odolkia, sagarra, kipula, azukrea, arrautza, kakahueteak

Zartagin batean prestatzen da sagar konpota, sagar laukiak eta azukrea botata. Beste zartagin batean kipula karamelizatuta prestatzen da. Kipula juliana moduan ebakita eta azukrearekin erregozten uzten da 45 minutuan. Odolkiari larruzala kendu ostean, sardexka batekin zapaltzen dugu. Gerxeago mikro-labean berotu. Nahasten dugu odolkia eta konpota, eta ondoren kroketa itxura ematen diogu. Arrautza eta kakahueteetatik pasa, eta frijitzen uzten dugu. Jarraian (sukalde paperean) olio lehertzeko uzten ditugu. Bukatzeko osagaiak ogi gainean jarriko ditugu, eta azkenean piper gorri tira bat goian dekoratzeko. On egin!

<b>Zaitasun maila</b>	Erraza
-----------------------	--------

**Pintxoaren prezioa:** euro 1

## LAS NAVAS KAFETEGIA



Aspaldiko taberna auzoan, poteo zonaldean. Astelehenetik ostiralera goizeko 8etatik gaueko 23etara zabalik. Larunbatero goizeko 11:30etik goizaldeko ordu 1era arte eta igandero goizeko 11:30etik gaueko 23etara. Pintxo askotarikoak, futbolina eta futbol partida guztiak bi pantaila handitan. Arduradunek prestatzen duten kafe goxoa nabarmentzen dute, baita eskaintzen den arreta handia ere.

**Zorrotza Kastrexana errepidea 4**



## CAFÉ LAS NAVAS

Pintxo goxoak eguneroko

Zorrotza Kastrexana errepidea 4

# Bar La BOMBA

Zorrotza Kastrexana errepidea 33



 **MAPFRE**

**Estibaliz Ibañez Canal**  
Delegatua

Astillero, 8  
48013 Bilbo

Tel. 94 441 91 87  
iestiva@mapfre.com  
amпасcu@mapfre.com

## MAPFRE ASEGUURAK



25 urte igaro dira Mapfre Zorrotza bulegoa zabaldu zenetik. Estibalizen lehenengo pausoak Fernando Viana bere errefente eta lagun ahaztezinaren eskutik izan ziren. Gaur egun talde perfektua osatzen du Amalia Pascualekin batera. Igaro diren urte hauetan guztietan, auzo fidel eta leial honi arreta ematen saiatu dira. Horregatik haiengan konfidantza izan duen auzokide orori eskerrak eman nahi dizkioite, leialtasuna, pazientziagatik, eta kasu askotan, izandako adiskidetasunagatik.

Ezahutzen ez badituzu, haien bulegora bertaratu, pertsona bakoitzari egokitutako produktu berriak ezagutzeko aukera izango duzu. Auto aseguruetatik hasita, erretiroaren plangintzara arte, han zainduko zaituzte eta zure zain daude.

*Mapfre aseguruak. Estibaliz eta Amalia Astillero, 8. Tlfnoa. 94 441 91 87*



## 12etan bermuta

Jasone Osoro. elkar. 2015




Besteez hitz egitea, azken finean, norberaz hitz egitea da. "12etan bermuta" liburuaran estruktura erakitzeko oso planteamendu ausarta izan du Jasone Osoro idazleak. Banakako ipuinak legez irakur daitezkeen kapituluetan sailkatuta, Bertak, emakumezko protagonista, lehenengo pertsonan eta zeharkako elkarrizketen bidez kontatzen digu nolakoak izan diren bere bizitza eta

izaera markatu edo definitu dituzten pertsonak, eta beraien erlazioak. Oso ausarta izan da idazleak erabiltzen duen hizkuntza ere euskal literaturan gutxitan agertzen den konplexurik gabeko kaleko euskara. Hala ere, horrek ez du esan nahi maila baxuko euskara edo testuaren esanahia ulertzea errazegia denik. Ordea, desesperantzan murgildutako mami handiko testuak dira, erabateko eta muturreko sentimenduez mintzatzen zaizkigun esaldiak, egoera berdinetatik pasatu ez arren irakurleoi sententzio berberak gogorarazten dizkiguten hitzak.



## Punkaren semeak

Txapelpunk (Baga.bigga. 2015)



Euskal Herriko musika eszenan aski ezaguna da Iñigo Arrasate "Iñigito". Lekeitioko Etsaiak talde mitikoan hasi zen 80ko hamarkadaren bukaeran eta gaur egun bertan jarraitzen du. Milurteko berriarekin batera Txapelpunk proiektua abiarazi zuen Iñigotok. 15 urteren

ondoren zazpigarren diska aurkeztu berri du "Punkaren semeak" izenburupean. Aurrekoan bezala Baga-bigga disketearen babesia izan du taldeak.

Bere anaia Atrofi baxuan eta Toki baterian bidelagun dituela punk kutsuko sei abesti bildu dituzte. Iraupen txikiko diska, erritmo zuzen eta azkarrez osatua, taldearen nortasuna argi eta garbi utzi. Hasierako printzipioei eutsiz, euskara eta gaztelania tartekatuta dituzte lekeitiarrek. Entzunerraza eta nahiko alai dela esan dezakegu eta entzun orduko konturatu zaitezke hasierako izpiritua oraindik ere mantentzen dela. Bideoklip berria grabatzeko orduan "Taberna" singlea aukeratu dute. Bertan, Bilboko kaleetan zehar ikus dezakegu taldea bere saltsan.



Zure iritzia jakin nahi dugu. Bidaliguzu zure artikulua [zmorrotz@gmail.com](mailto:zmorrotz@gmail.com) helbide elektronikora gaiaren laukian "iritzia" jarritz. Eskerrik asko!

## EUSKARAREN ERABILERA EZ SEXISTA



**Androzentrismoa**, mundua ikusteko era da, gizonezkoa gauza guztien zentru bezala harzen dituen. Beraz, gizonezkoen esperientzia eta ikuskera unibertsaltzat hartuko du, eta gizon hitza gizakia hitzarekin parekatzea praktikan jarriko du.

Hori, oso modu nabarmenean ikus dezakegu historia liburuetan... proportzioan, zenbat gizonezko pertsonaia ikasten ditugu, emakumezkoen aldean? Androzentrismoak emakumeen bizitzen eta esperientzien iku-

sezintasunera darama, hauen ekarpena ez-kutatuz... Zein izan zen emakumeen papera gudetan? Zein urtetan lortu zuten emakumeek botoa emateko eskubidea Espainian?

Honi jarraiturik, hizkuntzan ere modelo androzentrikoa erabiltzen dugu askotan. Adibidez, Frantziar Iraultzaren ondorioz sufragio unibertsala ezarri zela edo greziarrek haien ordezkari politikoak demokratikoki hautatzen zituztela esatean, emakumeak eta maila baxuko gizonezkoak historiatik ezabatzen ari izango gara, "gizonezkoek" baino ez baituzten egin.

## SALAKETA ARGAZKIA



## Gure eguratsa, zerbitzuz kanpo

Zerbitzuz kanpo urteak daramatzaten arren, oraindik ere zutunik diraute parkeko kabina meteorologikoek. Gure airearen kalitateari buruzko gardentasun informatiboaren metafora baino ez diruditen arren, egun benetako arriskua suposatzen dute, koadro elektrikoaren egoera traktatsa dela-eta. No comments.



## Taramona

**ERAKUSTOKIA ETA SALMENTAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 45-57-75  
Telefonoa: 94 442 44 68

**TAILERRAK ETA ZERBITZUAK**  
Zorrotza-Kastrexana errep. 75  
Telefonoa: 94 442 17 12



# Alazne, zorrotzarron gogoan

**Alazne López Etxebarria Zorrotzako neska bat zen, umetatik dantza klasikoa gogoko zuena, oso gogoko gainera. Pasa den urteko maiatzean Alazne hil zen Alemaniako Dortmund hirian.**

Bere lehenengo pausoak dantzaren munduan Igor Yebraren eskolan eman zituen. 15 urte zituela, Foru Aldundiko beka batekin Londone-ra joan zen bertako dantza eskola ospetsuan trebatzera. Izen handiko zuzendarien aginduetara egin zuen dantza bere bizitzan eta Londongo Joko Olimpikoen azken ekitaldian ere parte hartu zuen.

Ikasketak amaituta, bere tokia bilatzen hasi zen Europako hainbat dantza konpainiatako ateetara joz. Lehendabizi Hannoverekoan sartu zen 2013an eta handik Dortmundeko Ballet Konpainiara egin zuen salto, baina zorritzarrez oso denbora laburra eman zuen bertan. Ustekabeko bere heriotzaren albistea tristea eta hunkigarria gertatu zen eta ez bakarrik bere familia eta pertsona gertukoentzat; izan ere, Zorrotzako Institutuko hainbat ikaskidek eta ezagutu zuten askok gogoratzen dute pertsona jatorra, alaia eta hurbila zela.



Arazoi hauengatik iruditzen zait Alazneren izena ezagutua izan behar dela Zorrotzan eta, aldi berean, gogoratu. Horrexegatik txalogarria deritzot Auzo Elkarrekin Udalarik egin dion proposamenari, hots, Zazpi Landako lorategi berriari Alazneren izena ematea. Ea laster asmo hori egia bihurtzen den.

*Karlos Rodríguez*

**ARIN GRAF, S.L.**  
INPRENTA

Zalbidea estarta, 13-2.  
48013 ZORROTZA - Bilbo  
Tel/Fax: 94 441 38 23  
info@aringraf.com

Restaurante  
**Arsenio**

Tfno. 94 497 10 03  
Hermógenes Rojo, 6  
48013 BILBAO

Pintxo askotarikoak  
Menu bereziak (enkarnez)  
Eguneko menua

# Zatoz udaberriko kanpalekuetara!

**1999 eta 2009. urteen bitartean jaino bazara, Gure Lurra elkarteak martxoaren 29tik apirilaren 2ra arte izango diren udalekuetara gonbidatzen zaitu**



Ohitura den legez, Gure Lurra bere atea zabaltzen ditu bazkide direnez gain, bazkide ez diren umeentzat ere. Udalekuek Santinañez de Zarzagudan (Burgos) dagoen aterpetxe batean iraungo dute martxoaren 29tik apirilaren 2ra arte.

Bazkideek lehentasuna izan arren, 1999 eta 2009. urteen bitartean jaiotako edonork lor dezake (zozketa baten ondorioz) udalekue-tan plaza bat. Zorionekoak, autobusez Fray Juan 35 helbidean dagoen autobus geltokitik irtengo dira martxoaren 29an (astearte) goizeko 10.30ean. Eta buelta leku berean izango dute apirilaren 2an (larunbata) goizeko 16.30ean.

Kanpaleku honetarako berandu bazabiltza, gogora ezazu, uztailen parte hartzeko beste aukera bat izango duzula!

Begiraleak eta zenbait ume, Burgosetik 22 km-ra dagoen udalerriaz oroituko dira, izan ere, ez da izango aterpetxe horretan ospatuko diren lehenengo udalekuak. Aterpetxeak hainbat logela izan arren, erabilera

anitzerako beste zenbait gela ere baditu. Beraz, eguraldi txarra eginez gero, aterpetxe barruko gelak erabili daitezke tailerrak egiteko. Baina udalekue-tan bultzatzen den lehenengo ekintza denok batera kalean jolastea da, bai txangoak, aisialdiko jarduerak edota gynkanak eginez. Udaberriko kanpaleku honetako jarduerak “denbora makinaren” gaiarekin erlazioa izango dute; ezuste eta barre algarak itxaroten dira!

Udalekuan, haur eta gazte eremuan esperientzia handiko borondatezko begirale taldea arduratuko da dinamizazio eta heziketa lanez. Gure Lurra Aisialdi Taldeak bidertzen dituen udaleku guztietan bezala, jarduera desberdinak eta hezigarriak izango dira. Begiraleek kontuan hartuko dute adin desberdinetako umeak parte hartzen dutela, adin talde desberdinei egokitutako aktibitate desberdinak egiteko, inor aspertu ez dadin eta denek ondo pasa dezaten.

# Esna harrapa zaitzala!

Ezin gara etorkizunaren zain egon, gazteok oraina gara etorkizunak esna harrapatzeko, adi, prest. Gurea eraikitzeko, eraldaketa emateko, urratsez urrats egin behar dugu bidea. Esparru ezberdinetan gazteok autogestioaren alde egiten dugun apustuaren isla izango da Gazte Danbada, aisialdia eta borroka uztartuko dituen jaialdia. Gazteok gazteontzat egindako topalekia. Elkarrekin hausnartu, sortu eta hazteko gunea martxoaren 25, 26, 27 eta 28an, Laudion.

Ernai eta Aitzina Gazte Antolakundeak elkarlanean antolatuko dugu Gazte Danbada topagunea bestelako herri eredu baten aldeko borroka hauspotzeko. Egun gazteok bizi dugun egoera prekarioran, esna egotea ezinbestekoa da, horregatik esaten dugu "Esna harrapa gaitzala"; orain eta bihar gazteok gure lekua izateko, bitzta duina izateko. Aisialdia eta borroka uztartzeko planteamendua egingo dugu lau egunez. Edukien lanketari, hots, tailer, hitzaldi eta eztabaidei behar besteko pisua eman ez baina aisialdirako eskaintza oparoa ere egingez. Horrez gain, iraultza gure baitan has-

**GAZTE DANBADA**  
ESNA HARRAPA GAITZALA  
MARTXOAK 25-26-27-28 LAUDIO

OSTIRALA 25

**NORTE APACHE · ESNE BELTZA**  
**GATIBU MCONAK AFU ERROMERIA**  
NEVADAH BURUNDANGA GOLIATH SKABIDEAN  
ZAZKEL ODOLAREN MINTZOA LORRAITZAK EKIA SUEDEK

LAGUNBATA 26

**BLAKA SORKUN · ARKADA SOCIAL**  
**NON SERVIVUM JUANTXO SKALARI**  
AUTOBUS MAGIKOA DSZAUST EZUSTEAN  
LUR-J PATX&RUJI UHER ZARTAKO-K ATZEKABE

IGANDA 27

**KENZAZPI · BELAKO · GOSE**  
**PIXONTXISI XUTIK LASTEAPARTY**  
SEI ZORO ETENIK EZI HIRAKUSHA KATEZ TOOTH  
IZEBERG ZENIKE HAKOTZ ERASOZ ERANTZUN

ten dela sinisten dugulako, jaialdiaren antolakuntza osoa ahalik eta burujabeez izateko apustu sendoa egingo dugu: bertan kontsumituko ditugun jakiak inguruko nekazarienak izanik, entzungo dugun musikaren talde gazteak protagonista izanik, lanean izango garenon zaintzari garrantzia emanaz, gazteon parte hartzea lehenetsiz...

Aisialdia eta borroka uztartzeko planteamendua egingo dugu lau egunez. Edukien lanketari, hots, tailer, hitzaldi eta eztabaidei behar besteko pisua emanaz baina ondo pasatzeko eskaintza oparoa ere egingez. Horretarako, goiz eta arratsaldean lan-keta politiko lehenetsi eta iluntzetik aurrera aisialdiko eskaintza nagusituko da.

Eskaintzari (politikoa, aisialdia, otorduak, hondakinak..) eta antolaketari dagokionean, aldarrikatzen dugun ereduarekiko ahalik eta koherenteena izaten saiatuko gara; burujabetza aldarrikatuzetik edukiz jantzi eta praktikara eramanez.



**Jai-Alai**  
kafetegia

Abaro estarta. 12  
94 490 12 59

*Regalos*  
**Omega**  
oparidenda

Frai Juan 19  
Omega galeriak  
Zorrotza  
94 482 03 66

www.omegadetalles.com

**VÍA gráfica**

viagraficazorrotza@gmail.com

**Disenya**



### Oskar

Asko hobetu da. Gurasoak umeekin mozzortzen hasi zirenetik, giroak gora egin du eta oso inauteri polita dugu gaur egun.



### Alex

Auzoko aktibitatea izateko, ez dago guztiz txarto. Hala ere, udalak esfortzu gehiago egingo balu, askoz ere hobeto egin liteke.

## Inauteria:

Giroa azken urteotan hobetu egin dela uste duzu?

Iratze Pérez



### Diana

Zorrotzara etorri berria naiz orain dela gutxi. Ez dakit nolako giroa zegoen lehenago, baina egon naizen azken bi urte hauetan oso giro ederra dago



### Iraia

Ni Sondikakoa naiz eta Zorrotzako inauterira natorren lehenengo urtea da, baina egia esanda, oso giro ona dagoela iruditu zait.



### Iñigo

Urteroko jendearen ilusia ikusten dut, jende asko hartzen baitu parte. Auzoko giro familiar hau ederki iruditzen zait beti.



*Etxeko berezitasuna: haragiak eta arrainak  
Itsaski-baztegi propioa  
Eguneko menua eta menu bitzartua*

Hermógenes Rojo, 2  
48013 Zorrotza

Tel. 94 499 01 30  
[www.mesonluna.es](http://www.mesonluna.es)



**FARMAKOTEGIA  
SUSANA  
URRITIKOETXEA**

Astillero 1. 48013. Zorrotza  
Tlfno. 94 441 61 46



Bilbon  
euskaraz



[www.bilbaoeuskaraz.eus](http://www.bilbaoeuskaraz.eus)



[www.ikusietaikasi.net](http://www.ikusietaikasi.net)



[www.harrapazank.com](http://www.harrapazank.com)



## EUSKARAZ ERE, NATURALTASUNEZ

Harremanetan euskara naturaltasunez erabiltzea funtsezkoa da zerbitzu ona eman ahal izateko. Euskadiko Kutxan, zurekin euskaraz aritzea ez da aparteko aukera bat, gure nortasunaren eta gure izaeraren berezko ondorioa baizik. Izan ere, geurea zaintzea gustatzen zaigun, geure ezaugarri bereizgarriak eustea eta irunartzaren laguntzea, etorkizuna bermatzeko. Izan ere bada euskara bizitzeko beste modu bat... naturaltasunez.

  
**LABORAL**  
kutxa

# #lotsarikgabe

praktikatu gurekin



**Izan zaitez berbalagun!**

IZENA EMATEKO: AEKren euskaltegietan edo Asapala, Berbaizu eta IPESen bulegoetan.

☎ 607 530 132

🌐 [www.berbalaguna.blogspot.com](http://www.berbalaguna.blogspot.com)

✉ [berbalaguna@aek.org](mailto:berbalaguna@aek.org)

📍 Berbalaguna Bilbo



praktikatu

